



Larizgoitia etxebizitza

Aldacrak:

Ahozkoa: Laixgóti



43° 11' 13"

2° 33' 55"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería rústica titulada Larizgoitia... situada en la Cofradía o barriada de San Lorenzo jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con su accesoria que está enfrente cinco mil y cuatrocientos pies cuadrados superficiales de planta solar, y la que se compone de sus correspondientes pisos, cuadrados y habitaciones..."
DJE, 1/ 190. or. (1866)

Lariz jauregiaren (**Ikus Lariz**) inguruko etxeetatik kanpo gelditzen den baserri honen gaineko lehen aipamenak XVII. mendean aurkitzen ditugu, hots, *Larizgoitia* (1685, BAH, A1857/32. or.). Beste hainbat izenekin gertatzen den moduan, izen hau ia aldaketarik gabe heldu da gaur egun arte. *Lariz Goytia* (1704) eta *Lariz Goitia* (1745) aurkitzen ditugu Bizkaiko su-erroldean, eta XIX. mende hasieratik, *Larizgoitia* (1810, BAH, A23/11. or.) forma finkatuko da dokumentu guztietan: *Larizgótia* (1859, BUA, Nmcr / 1967, BUA, CE). Berriztarren artean, *Laixgóti* da ahozko formarik erabiliena.

Bizitza biko etxea da, dotorea, kalekoen antzera eraikia. Egia esanda, elkarren ondoko etxe bi dira, teilatu bakarraren azpian eta, itxura areagotzeko, honen gailurra fatxada nagusiaren paralelo egin zuten. Bakoitzaren tipologia sinplea da eta oso modu garbian dauzka baoak antolatuta. Simetria da nagusi eta hiru ardatzetan zabaldu ziren atea eta leihoak. Hala, atea erdi-erdian dago eta alboetan, leiho bana. Gainean, lerrokatuta, hiru leiho, behekoen neurrikoak, eta ganbaran, beste hiru, baina txikiagoak. Erabilak materiala harlangaitza da, harlanduarekin batera, ateetan eta leiho ertz guztietan. XIX. mende inguruan jasoko zuten.

toponimia

Bizkaian ohikoa da etxe izenak oso luzeak izatea, luzeenak Euskal Herrian, lehenengo osagaia auzo izena izaten delako. Sarritan auzo izena izatez bertan egon zen lehenengo izena baino ez da. Etxe bakarra egon zen eta bigarren bat eraikitzean zerbait bereizgarri gehitu zioten berriari eta gehienetan zaharrari. Denboraren poderioz auzoa sortu zen eta etxe guztiek hasiera bera hartu zuten, auzoaren izena. Ahoz, gehienetan bigarren zatia besterik ez da erabiltzen. Kasu honetan goiko aldeko etxea da. Goitia hitza oso zaharra da eta gaur egun ez da erabiltzen, goikoa baizik, baina oso arrunta da deitura eta toponimoetan.